



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2014ko UZTAILREN 29an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2014ko uztailaren 29an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Leire Otegi Elola
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2014ko ekainaren 24an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Alkizako Udalak eta Bidegi Gipuzkoako azpiegituren agentzia S.A. ren artean, udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaz hitzarmenaren onspena, hala bada.**
5. **Alkizako Herri Ostatuaren errentamentu eta ustiapenaren behin-behineko esleipena, hala bada.**
6. **I.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **J.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera, hala bada.**
8. **Tolosaldeko PTP-aren inguruko alegazioaren onspena, hala bada.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko ekainaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

24/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 1ekoa, 2014ko abenduko aparteko ordainsaria udal langileei aurreratzeko onespena ematea, ebazten duena.

25/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 1ekoa, 2/2014 kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

26/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 1ekoa, 2/2014 kreditu aldaketaren espedientea onestea, ebazten duena.

27/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 10ekoa, A.E. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, bere jabetzakoa den 8533HSZ matrikula duen ibilgailuen zergari salbuespena ematea.

28/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 10ekoa, Haurreskola zerbitzua erabiltzeagatik aparteko diru-laguntzak ematea, ebazten duena.

28/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 10ekoa, Larraulgo udalari 200 aulki uztea, Larraulen, abuztuaren 1etik 3ra ospatuko duten San Esteban jaietan erabili ahal izateko, ebazten duena.

29/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 14koa, faktura txikien zerrenda onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, ebazten duena.

31/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 23koa, Maderas Garmendia S.L.ri I.Z. jaunaren ordezkari jarritako abala bueltatzeko onespena ematea (herri bidearen erabilpenarengatik), ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- M ^a VALENTINA MONTERO	545,88€
- QUISER	123,78€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	2.656,61€
- ULAHI	526,35€
- IZFE	1.686,95€
- GARRA	42.636,77€
- QUISER	509,35€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	147,85€
- M.URANGA	1.026,08€
- ARGITU	156,50€
- LAIBI	756,25€
- TOLOMENDI	122,40€
- EBA ERKIZIA	137,88€
- BULEGOAK	136,57€
- KOIEDER	556,60€
- PEDRO ELOSEGUI	272,92€
- LABUR	202,15€
- AUDAX	522,77€
- AUDAX	185,53€
- REPSOL	198,98€
- REPSOL	129,02€
- GAS NATURAL FENOSA	198,77€
- GAS NATURAL FENOSA	150,58€
- GAS NATURAL FENOSA	316,96€
- GAS NATURAL FENOSA	120,96€
- GAS NATURAL FENOSA	313,72€
- GAS NATURAL FENOSA	281,94€
- GAS NATURAL FENOSA	357,01€
- MOVISTAR	365,50€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **55.342,63** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA S.A. ren ARTEAN, UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik BIDEGI Gipuzkoako azpiegituren agentzia S.A.- aurkezturiko hitzarmena, non udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmenaren onespena proposatzen duten, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean deskontuak egiteko, ziurtatu behar dutelako eskatzaileek Gipuzkoako Udalerri batean erroldatua egotea.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Udalaren eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentziaren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmenaren onespena.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakaria ahalmenu Alkizako Udalaren eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentziaren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu ahal izateko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentziari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ERRENTAMENDU ETA USTIAPENAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko maiatzaren 27an egindako Udalbatzarrean, Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpenera eman zitzaioela.

Ikusirik 2014ko ekainaren 17an jendaurrean jarri zela, GAO an argitaratuz eta kontratatzaile profilean, Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren deialdia, non interesatuek, hogeit eguneko epean, euren proposamenak Alkizako Udalean eman behar zituzten.

Ikusirik, goian aipatutako epean interesatu bakarra aurkeztu delarik, baldintza guztiak betetzen dituen, kontratazio mahaiak horrela ziurtaturik,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

azken honen proposamena, B.LL.jaunari behin behineko esleipena egitea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- B.LL. jaunari Alkizako Herri Ostatuaren errentamendua eta ustiapena behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENGOA: B.LL. jakinarazi Alkizako Udalean aurkeztu beharko dituztela, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epean ondorengo dokumentazioa:

- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Alkizako Udalarenak kitaturik dituela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Baldintza-agiri honetan eskatutako gainerako dokumentu guztiak.
- Aseguru-poliza, baldintza-plegu honetan araututakoaren arabera.
- Behin betiko bermea osatua izanaren ziurtagiria.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri esleipen honetara aurkeztutako interesdun guztiei ematea.

SEIGARREN PUNTUA

I.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik I.A. jaunak eginiko eskaera, non Udalak duen apartamentua denboraldi batean hau erabiltzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Gizarte Langile andreak egin duen txostenean, egindako proposamenak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.A. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Udalak Don Juanena etxean duen apartamentua erabiltzeko baimena ematea, hilean 250.-euro ordaindu beharko dituelarik.

BIGARRENA: I.A. jaunari jakinaraztea, Udalak Don Juanena etxean duen apartamentua erabiltzeko baimena hiru hilabeterako izango dela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: I.A. jaunari jakinarazi, Udalaren apartamentua erabiltzen hasi aurretik, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela.

LAUGARRENA.- I.A. jaunari jakinarazi, Udalaren apartamentua erabiltzen hasi aurretik, 150 eurotako fidantza jarri beharko duela Udaletxean.

BOSTGARRENA.- Akordio hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

J.G. JAUNAK EGINIKO OBRA BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik J.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera, non Gorostiurrea etxeko lau poste pintatu eta egurra garbitzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- J.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Alkizako Gorostiurrea etxeko lau poste pintatu eta egurra garbitzeko obra baimena ematea, betiere *Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira legeak esaten duen bezala.*

**Lanak irauten duten bitartean, legeak ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira. “*

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO PTP-aren ALEGAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

PTPari egiten zaizkion alegazio hauen bidez, Tolosaldearen etorkizun eraikitzea dugu helburu. Mota honetako dokumentoez, epe ertain luzeko egitasmoak antolatu nahi dira, ondorioz ezinbestekoa da hauek garaiko behar, aukera eta errealitateetan oinarritzea.

Lurralde batek bere garapenerako ezinbesteko tresna du honakoa, PTPa. Horrela, honen bidez eskualde mailako oreka eta etorkizuneko aukerak identifikatu eta bideratzen dira. Herri mailatik haratago, eskualde mailan



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

artikulatzen da dokumentoa, jakitun herri ikuspegiak baino egitura eskualdeak behar duela izan, hau baita tokiko errealitateei hoberen egokitzen zaien esparru geografikoa.

Gurean, Tolosaldea, 28 herriz osaturiko lurraldea da, non Tolosa buru den. Herri txiki eta eskualde buruaren arteko arremanak indartsuak izan dira beti eta Tolosak inguruko herriei zerbitzuak eskaini izan dizkio. Horren erakusle, Euskal Herriko merkataritza dentsitate altuena duen herria izatea Tolosa, finean eskualdeko populazioari zerbitzuak eskaintzen dizkiolako. Hau horrela, guztiz zentzuzkoa da PTP honen eragin esparrua Tolosaldea izatea.

Aurrez aipatu moduan, ezinbestekoa da horrelako dokumeto batek, garaiko beharretatik abiatuta etorkizuneko ildoak markatzea eta horretarako egungo egoera izatea oinarri.

Azken urteetako gora behera ekonomikoek agerian utzi dute aurretik zegoen hazkuntzaren paradigma edota hazkuntza infinitoan oinarrituriko eredu ekonomikoak dituen mugak. Hau horrela izaki, etorkizuna eraikitzeko oinarri dokumentoak ezin dio bizkar eman azken urteek eman diguten irakaspenari. Dokumentu honen lehen zirriborroa 1998koa dela kontutan hartuta, garaiez kanpo geratu dela agerian gelditzen da. Gainera, berau zati handi batetan garatuta dago nahiz eta onartua egon ez, ondorioz alegazio hauen bidez, garatu gabe dauden zenbait puntu jorratuko dira, zentzu gutxi baidu eginikoaren gainean ezer esatea, eginga baida.

PTPa, eskualde mailako ildoak bideratzen dituen, herri mailako planeamenduek ere honek markaturiko iparra jarraitu behar dute eta aldi berean, PTPak DOTak jarritakoak. Horrela, eskuartean dugun dokumentoa bere gainetik dagoen DOTa baino lehenago erredaktatuta dago, ondorioz eta kontutan hartuta hau ere errebisatzeko aurreikuspena dagoela, alegazio hauek egungo kontestua oinarri hartutz lantzen dira.

Hazkuntza infinitoaren paradigmak porrot egin du, horrela hemendik aurrerako lurralde antolaketa diseinuak ditugun azpiegituren kudeaketa eta efizientzia bilatu behar dute. Lur berrien okupazioa, industria gune berrien sorrera, urbanizazio eta herrien hazkuntza neurrigabeek behar objetiboei erantzun behar diete eta horien aurretik egun dugunaren kudeaketa efizientea lortu behar da. Horrela lehentasunak industriguneen modernizazioan, etxe hutsen aurkako politika efikazen kudeaketan, zerbitzu publiko efizienteetan oinarrituriko garraio zerbitzuen eskaintzan, lehen sektorerako lur erreserbetan egon behar dute.

Horrela, eskualde mailan egun eraikiak dauden azpiegituren efizientzia bilatu behar da, dauden gune zaharkituen modernizazioa eta eraberritzea lehenetsi gune berrien okupazioaren gainetik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Lurralde garapen honen erdigunean eskualdeko herri txiki handien arteko oreka egon behar da. Eskualdearen idiosinkrasia errespetatzen eta hau etorkizuneko aukera moduan hartzen.

Hona hemen Tolosaldea Eskualdearen izenean, berau osatzen dugun 28 udalerririk proposatzen ditugun aldaketa nagusiak:

1. IBARRAKO SAHIESBIDEA.

Sarreran aipatutako eredu desarrollistari erantzuten dio. Lur berriak okupatuko lituzke eta bere inguruan lurraren espekulazioa areagotuko luke. Bide azpiegiturei dagokienez, egun ditugunen optimizazioaren azterketa sakona egitea eskatzen dugu eta aldi berean, garraio publikoaren eta garraio alternatiboen sustapena egin dadin ikerketa egokia egitea eskatzen dugu.

2. VILLABONA-ANOETA-IRURA KORRIDOREA.

Lurralde zatikako plan honek Oria ibaiak Irura-Anoeta eta Villabona artean urteen poderioz sortutako lur sedimentarioak okupatzea aurreikusten du.

Lurralde kohesioari eta garapen ekonomiko orekatu bati erantzun nahi badio, lurralde zatikako planak, datozen hamarkadetan eskualdean garatu daitezkeen nekazal ihardueren lur beharrei erantzun behar die. Beraz, sedimentazio lur hauek, nekazaritzarako oso produktiboak direnez, nekazal ihardueretarako erreserba moduan jaso beharko lirateke. Ez ditugu lur produktiboak okupazio berriekin hipotekatu nahi, eskualdean kontsolidatutako lur industrial eta residentzialak zaharkituta hiltzen ari diren bitartean. Lehentasuna hauen modernizazioa da.

3. MANDOEGIKO PARKE EOLIKOA.

Ez dugu uste lurralde zatikako planaren eskumena denik gai hau. Dena dela, hala jasoko bada, PTSak dioena jaso beharko luke eskualdeko herritarren horren berri izan dezaten. Energia berriztagarrien aldeko apustua egin beharra dago baina hau ere beste eskala batetan eta modu alternatiboan gara daitekeela uste dugu: Urkizuko Mini Eolika Proiektua, Villabonako Agaraitz Zentral hidroelektrikoa... energia berriztagarrien estrategiak, tokiko beharrei erantzun beharko lieke eta jadanik dauzkagun baliabideen aprobetxamentutik abiatu.

4. TOLOSAKO SAN ESTEBAN ESPARRUA.

Lurralde zatikako planak esparru honi aitortzen dion eraikitze muga handiegia da eta beraz, etorkizunean eraikitze dentsitate gutxiago daukan esparru bat izatea eskatzen da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5. OSASUN AZPIEGITURAK.

Tolosaldea da EAEn, eskualde izaerako hospital publikorik ez duen eskualde bakarrenetakoa.

Hau honela, etorkizunean zabal daitezkeen aukerak ikusita, eskualdeko herritarren beharrak asetzeko nahitaezkoak diren osasun ekipamentuen kokapenerako lur erreserba jaso beharko luke lurralde zatikako planak.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Tolosaldeko PTP-aren inguruko aipaturiko alegazioak bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.